Zarautz E ordainlekuaren portikoa jarri da

Lanak ostiraletik larunbaterako gauan egin dira eta hainbat orduz ordainlekua itxita egon da 18 tonako portikoa altxatu eta bere tokian jartzeko

Zarautz E ordainlekuaren berritz-lanek aurrerapauso nabarmena egin du asteburu honetan. Ordainlekuaren bideetako informazioa eman eta sistema guztiak hartuko dituen portikoa behin betiko tokian jarri dute.

Lanak ostiraletik larunbaterako gauan egin dira. Tarte horretan garabi handi batek 18 tonako pisua duen portikoa altxatu du behin betiko kokalekuan jarri arte. Horretarako, ordainlekua 21:00etatik 06:00etara guztiz itxi behar izan dute.

Behin portikoa jarrita, ordainlekuaren lanak azken txanpan sartu dira. Portiko berria jartzeko lanak ordainlekua berritzeko lanen azken fasearen erdian egin dira. Irailaren erdian markesina zaharraren azken zatia eraisteko eta portikoa eusteko bi zutabeak jartzeko lanak egin ziren, eta orduz geroztik, beste bi bide eraikitzeko hasierako lanak egin dituzte. Behin portikoa jarrita, azken bi bide horiek amaituko dira, eta portikoan jarri beharreko sistema eta informazio pantaila guztiak jarriko dira.

Ordainlekuaren eraldaketa

Udako denboraldia amaitu ondoren berriro hasitako lanekin ordainlekuak izango dituen sei bide berrituak amaituko dira. Erabiltzaileek bide berri hauetatik Abiatu eta VIA-T gailuak gelditu gabe igaro daitezke. Era berean, bide hauek telefono mugikorraren, erloju adimendunaren eta banku-txartelaren bidez kontakturik gabeko sistema erabilita ordaintzeko aukera ematen dute, eta eskudirutan ordaindu nahi duten erabiltzaileek makinan bertan egin dezakete. Bide berri hauek matrikulak irakurtzeko kamerak eta ibilgailu mota bereizten laguntzeko sistemak dituzte, baita erabiltzaile-operadore urruneko komunikazio-mekanismoak ere.

Bidegi 3,4 milioi euroko inbertsioa egiten ari da Zarautz Eko ordainlekua

berritzeko. Aurreikusita dago ordainlekua urtea amaitu baino lehen guztiz berrituta egotea.

Zarautz, 2026-10-26

Colocado el pórtico de la estación de cobro de Zarautz E

Los trabajos se han realizado la noche del viernes al sábado y la estación de cobro ha estado cerrada durante varias horas para proceder a elevar y colocar un pórtico con un peso de unas 18 toneladas

La renovación de la estación de cobro de Zarautz E ha dado un gran paso adelante este fin de semana. Se ha colocado en su ubicación definitiva el pórtico que dentro de unos meses ofrecerá la información del peaje y soportará todos los sistemas.

Los trabajos se han realizado la noche del viernes al sábado. Durante ese tiempo una grúa de grandes dimensiones ha alzado el pórtico de unas 18 toneladas hasta colocarlo en su ubicación definitiva. Para ello, han tenido que cerrar el acceso a la estación de cobro entre las 21:00 y las 06:00 horas.

Una vez colocado el pórtico, los trabajos de renovación de la estación de cobro han entrado en la recta final. La colocación se ha realizado mediada la última fase de renovación. En septiembre se llevó a cabo el desmontaje del último trozo de la antigua marquesina y se colocaron las dos patas laterales que sujetan el nuevo pórtico. En ese momento comenzaron a construirse las dos últimas vías. Una vez instalado el pórtico se finalizará la construcción de las dos últimas vías y se instalarán los sistemas y las pantallas de información.

Transformación de la estación de cobro

Las obras reiniciadas tras la temporada de verano concluirán con la apertura de las seis nuevas vías de las que dispondrá la estación de cobro. Las y los usuarios pueden transitar por estas vías utilizando los dispositivos Abiatu y ViA-T sin necesidad de detenerse. Del mismo modo, las nuevas vías están preparadas para aceptar pago sin contacto a través del teléfono móvil, el reloj inteligente o tarjeta bancaria, y disponen de máquina para poder pagar en efectivo. Las nuevas vías están equipadas con cámaras de lectura de matrícula y sensores para diferenciar el tipo de vehículo, así como de un

mecanismo de comunicación entre el o la usuaria y la operadora.

Bidegi está realizando una inversión de 3,4 millones de euros en la renovación de esta estación de cobro. Está previsto que los trabajos estén finalizados antes de terminar el año.

Zarautz, 2026-10-26